

1993ko AZAROAREN 10eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko azaroaren hamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Ramon Bengoetxea Altuna ez da agertu eta ez du inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

INBENTARIOA

Udal Ondarearen kontrolerako sistema bat sortzearen beharra, atzera ezineko eginkizuna da Udal guztientzat baldin eta gestio egikor bat benetan nahi bada.

Gestio arazoak aparte utzirik, egungo legeriak, Erakunde Lokalen Ondasun Arautegiaren barne, beharturik daude Udalak beren eskubide eta ondasun guztien inbentarioa egitera, zernahi delarik ere berauen izaera edo eta eskuratzeko bidea.

Inbentario bat egitearen abantailak:

- 1.- Ondasun kopurua zein den zehaztea.
- 2.- Berauek identifikatzea.
- 3.- Berauek sailkatzea.
- 4.- Atergabeko eguneraketa batera behartzen du, berak ondare

kontabilitatearekin duen zer ikusiagatik.

- 5.- Egunera eramateko modua eskaintzen du errenta-kontratuak, zerbitzuek, aseguru polizak edo beste edozer.
- 6.- Edozein momentutan, eskumenean izan dezakegu Ondarearen egoera fisiko, ekonomiko eta juridikoaren informazioa.
- 7.- Inbertsio plangintzak egiteko bidea ematen du.

Guzti hau aztertu eta eztabaidatu ondoren, LIZARTZAKO UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEI BURUZKO INBENTARIOAREN AZTERLANA ETA BALORAKETA egitea, IGARATZA BULEGOARI adjudikatzea aho batez onartu da, berak aurkeztu duten proposamenaren arabera. Lan honen Aurrekontua, 425.000,- pezta + 15% Bez = 488.750,- peztatakoa da.

UDALETXEKO EKIPAMENDUA

Alkatesak hitza harturik zera dio:

Denok dakizuten bezala, Udaletxeko Berrikuntzaren obrak aurrera dihoaz, eta garaia iritsi da, bere Ekipamendua nola egin aztertzeko.

Ekipamendua gela hauetarako izango litzateke: LIBURUTEGIA, ARTXIBOA, ARETO NAGUSIA eta ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN BULEGOA.

Hori dela eta, hainbat etxeei eskaera luzatu zaie, Ekipamendu horretarako Aurrekontuak aurkeztu ditzaten.

Horren arabera, lau etxe izan dira, Aurrekontuak aurkeztu dituztenak.

KEFREN	- 7.043.584 + 15% = 8.100.121,- Pezta.
TECNO	- 4.046.310 + 15% = 4.653.256,- Pezta

GEIMO - 4.672.663 + 15% = 5.373.562,- Pezta

PABLO - 4.841.649 + 15% = 5.567.896,- Pezta

Aurrekontu guztiak aztertu ondoren, eta nahiz eta aurrekontu hori merkeena ez izan, bai modelo eta bai materialengatik, Udaletxeari hobeto egokitzen zaiona denez, PABLO Etxeari adjudikatzea proposatu du.

Proposamena aztertu ondoren, aho batez onartu da.

TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA ELKARTEAREN AURREKONTUA

Jose Antonio Mintegi Arrate Udalkideak, Tolosaldeko Mendi Nekazaritza Elkartearen 1.993 urteari dagokion Aurrekontua aurkeztu du.

Aurrekontua, 4.927.895,- peztatara igotzen da, eta hortik Lizartzari, 127.445,- pezta ordaintzea tokatzen zaio.

Tolosaldeko Mendi Nekazaritza Elkartearen 1.993 urteko Aurrekontua, aho batez onartu da.

LANBIDE HASTAPENEN TALLERAK

Alkatesak hitza harturik, zera dio:

Beste urteetan bezelaxe, Lanbide Hastapeneko 94. ikaturtea bideratu da, eta aurten ere herri hontatik 2 ikaslek eman dute izena:

AITOR AGIRREBARRENA BELDARRAIN - Arotzgintza

IKER ALKALDE ARZADUN - Sukaldari Laguntzailea

Aurrekontuari dagokionez berriz, Eusko Jaurlaritzak oraindik ere 1.994

ikasturteari dagokion laguntza jakinerazi ez duenez, ikasle bakoitzak, 200.000,-peztan inguruko kostua izango du.

Udalak, ikasle bakoitzarengatik, ordaindu behar duen kopurua haundia denez, eta 1.993 ikasturtean sortu diren arazoak direla eta, ikastaroa uztea, asistentzi arazoak e.a., ikasle bakoitzari, matrikula erdia, fidantza bezala, Udalarari ordaintzea proposatu du, ikasturtea amaitu eta, ikastaroko txosten justifikatzailea aurkeztu ondoren, itzuliko zaielarik.

Guzti honen arabera, ikasle hoiaren kostua Udalaren gain hartzea, eta aldi berean, izena eman duten ikasle hoiari erabaki honen berri ematea, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Manuel Barriola Jaunari

Goltzur-Zelai eta Muño inguruan Manuel Barriola Tolosa Jaunak egin dituen ixturak ontzat eman ezinezkoak dira Udal honentzat.

Udal honek ez du ulertzen edo entenditzen, gune edo puntu askotan harresi edo paretak daudenez gero, zergaitik sartu diran esolak eta alanbrea jarri herri lurretan. Muga garbia dagoen tokian, muga itxi behar da edo onenean bere lurretan, ez besteenean kasu honetan bezala.

Bada gunerik edo punturik, muga garbiari (pareta zaharra) jaramonik egin gabe, herri lurretan sartu dena. Horrek aldiz, aplikaziorik ez du.

Baita ere, ulertu ezinezkoa da, ardiei ankamina egiteko egindako ixturaren kokapena. Alboan, bere jabetzako lurra edo belaza eduki eta herri-lurretan egin.

Hau kontutan izanik, ezinbestekoa da ondorengo gogaitapenak egitea.

1.- Herri lurak, herriarenak dira, herritar guztienak alegia. Aldiz herri

bakoitzeko Udala da, herriaren, beraz herritarren, orokorki hartuaz noski, interesak eta ondasunak zaindu behar dituen, partikular batek berekin egiten duen bezala.

- 2.- Bi jabetzen arteko muga jarri edo definitu behar denean, hau garbi agertzen ez denean, oraindik eta gehiago, elkarrekin bildu, hitzegin, eztabaidatu eta erabakitzea da normalena. Hau da normalean pribatuen artean egiten dena. Badirudi ordea, herri lurrekin mugatzen duten pribatuek, hori egin beharra dagoenik ere ez dutela pentsatzen edo eta herriarena denez gero, nahi dutena egiteko eskubidea dutela, iruditzen zaiela.
- 3.- Kasu honetan muga garbi garbiak ere, harresiak alegia, ez dira batere errespetatu, ez baitago eskubiderik harresi kanpotik ixturarik egiteko, jabearen baimenik gabe. Pribatu batek hori ez du onartzen, beraz herriak ere ezin lezake hori onartu. Okerrago, zenbait puntutan, herriari lurra, itxura gabe kendu zaio, Udal honen ustetan.
- 4.- Ardiei ankamina egiteko ixturen beharra izan eta jabetzako lurretan egiterik ez izan eta erosoagoa delako herri lurretan egin nahi izanez gero, gutxienik baimena eskatu behar da, ez bakoitzak nahi duen bezala egin.

Guzti honegaitik, ERABAKI DU:

- 1.- Manuel Barriola Jaunari gutun bat bidaltzea, hamabost eguneko epea emanaz egindako hesia pareta gainera edo pareta barrura aldatu, eta ardiei ankamina egiteko ixturak herri lurretatik kentzeko.
- 2.- Epe horretan agindutakoa betetzen ez badu, Udal honek bere neurriak hartuko ditu, epaitegiatarakoak baztertu gabe.

Udaletxe Berrikuntzaren 1. eta 2. obra ziurtagiriak

Lizartzako Udaletxe Berrikuntzaren 1. obra ziurtagiria, BOST MILIOI

LAUEHUN ETA LAUROGEITALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITAMABI (5.484.532,-) peztatakoa eta 2. obra ziurtagiria, HAMAHIRU MILIOI LAUEHUN ETA LAUROGEITAMAIA MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITALAU (13.491.944,-) peztatakoa onartu eta Diputaziora bidaliak izan dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak laurdenagutxiago direnean.